

Banderak

Joxean Agirre

Espainiar askok dute banderarekiko obsesioa. Puigdemont piper potoari bi musu ematen ikustean soldaduskan eman genionarekin gogoratu nintzen, guk bibotea garbitu edo mukiak kentzeko egiten den imintzioa erabili bagenuen ere, antzezpen bat alegia. Kuartelean teniente bat genuen goizetan bandera altxatzen zenean kalera atera, jendea geldiarazi eta koadratzen zuena.

Geu ere ikurrinarekin obsesionaturik ibiliko ginen 13 urterekin gau batez lau ikaskidek seminarioko areto nagusian

ikurrin txiki bat jarri genuenean. Egia esan kartulina bat zen, baina Radio Pirineicak bi dorreen artean zintzilikatu genuela esan zuen eta zarata pixka bat eragin zuen. Modu xume horretan hasi genuen kalera eramango gintuen ekin-tzaile curriculum.

Garaitsu horretan gobernadoreak ere obsesionaturik egon ziren kolore zurigorri-berdearekin. Bizkaian Guillermo Condon izeneko bat erabat asaldatu omen zen behin Begoñako Amari buruzko deskribapen batean hiru kolore horiek deskubritu zituelako. Gure auzoko

mutil zahar batek manta zuri-gorri-berdearekin eramaten zuen aharia entrentzera. «Hi, manta hori nazionalistena duk», esaten zioten eta «ez, nirea duk, Tolosako sariketa batean irabazitakoa», erantzuten zien.

Espainiako banderari buruzko metaforarik ederrena fraide batek asmatu zuen Berako plazan gerra piztu berritan Gipuzkoara zihoazen erreketen bihotzak altxatzeko antolatu zuten ekitaldi batean: «Emakume baten ezpain gorriak irudikatzen ditu erdian urrezko hortzekin». Julio Caro Barojak kontatzen du. •

Konfiantza eta bertigoa

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Gauza asko izan daiteke baten-tzat norbere baserria, bereziki, han jaioa bada. Hori da nire kasua, Aitzarte baserria jaiotetxea da niretzat. Ez dakit bertako umetako uneez oroitu egiten naizen, edo kontatu izan didatenagatik oroitzapenak eraiki ditudan, baina oso haurra nintzeneko irudiak ikusten ditut denboran atzera begiratzen hasten naizenean.

Urteak joan egiten dira, orde. Aitzarten garai batean zegoen adina abere ez dago gaur egun. Ardien lanak egiteko,

ezeren okerrik ez bada, nahikoa dira gure gurasoak. Azken hilabeteotan, beraiek bakarrik bizi izan dira bertan, eta ahizpa eta biok agertu izan gara oso maiz amak prestatutakoa jatera. Orain, gure bizitzako etapa aldaketak medio, laukotea bildu gara berriz ere. Bolada baterako izango dela jakitun, sustraletara itzultzeak dakarren konfiantzarekin, baina bizikidetza berriz ohitzeak ematen duen bertigoarekin.

Lehen gaua igarota, iruditzen zait beti egon naizela jaiotetxera lotua, errezilda-

rra naizen hein berean izango naizela Aitzarteko Nekane. Baina eskertzen dut hori izateko eduki dudan askatasuna. Nonbaitekoa izatea ez baita handik ateragabe egotea, nondik irten eta nora joan zaren kontuan izatea baizik.

Aitzartetik irtenda joan naiz tabernara lanera, unibertsitatera ikastera eta mikrofono aurrean hitz egitera. Eta horietatik itzuleran, uste dut zerbait berriarekin natorrela, Aitzarte gaur egun denaren aletxo bat jartzen laguntzen ari naizela. •